



Janire Alonso · Janire Echevarria  
Aixerrota BHI, 15-16

## AURKIBIDEA

---

Alberto Ladron Arana ..... 2

Sarrera ..... 2

### ***Arotzaren eskuak***

Kokapena ..... 3

Gaia ..... 3

Argumentua ..... 3

Istoria ..... 4

Pertsonaiak ..... 6

Egituraketa ..... 7

Baliabideak ..... 7

Iritzia ..... 8

Bibliografia ..... 9

Webgrafia ..... 9

---

# Alberto Ladron Arana



1967ko abuztuaren 1ean Iruñean jaiotako euskal idazlea da. Maisu eta psikologia ikasketak eginak ditu. Gaztelaniaz baino ez zekien familia bateko kide, 20 urte zituenean bere aitonagandik ezagutu zuen euskaraz murgiltzea erabaki zuen, eta hizkuntza ikasteari ekin zion. Bere lehen literatur urratsak, 90eko hamarkadan euskaraz idatzitako kontakizunak izan ziren; hauekin hainbat sari lortu zituen. Baina 2001arte ez zen nobelak idazten hasi; lehenengoa *Itzalaren baitan* izan zen eta *Irun Hiria* saria irabazi zuen obra horrekin. Obran idazlearen fantasiako ipuinekiko grina agerian jarri zuen.

Bere hurrengo lanarekin idazle honen genero beltzean murgiltzen hasi zen; 2002an *Xake mate* (*Agustin Zubikarai* saria irabazi zuen nobela honekin), 2004an *Eguzki beltzaren sekretua*, 2006an *Arotzaren eskuak*, 2009an *Ahaztuen mendekua* eta 2011n *Zer barkaturik ez*.

## Sarrera

---

*Arotzaren eskuak* Alberto Ladron nafar idazleak 2006. urtean plazaturiko suspentsezko eleberria da. Nobela honek idazleak erabiltzen duen ohiko gaia du; hau da, misterioz eta sekretuz betetako istorioaren kontaketa da.

Fikzioa izan arren, lantzen duen gaia errealitatean ere gertatu daiteke. Serieko hiltzaileak benetan existitzen dira eta gehienak patroiz bat dute beren hilketetan. Gainera, Bigarren Mundu Gerra aipatzen du etengabe, garai hartan hasi baitzen istorio guztiaren oinarria, eta horrek errealitatearekin ukitu handiagoa ematen dio kontakizunari.

Narrazioari dagokionez, hirugarren pertsonan dago kontatuta. Horrez gain, ateratzen diren deskribapen eta elkarrizketez gain, zenbaitetan istorioa hobeto ulertzen laguntzen duten gutunak ere agertzen dira.

---

# *Arotzaren eskuak*

## **Kokapena**

Nobela honetan gertakizunen datak eta gertalekuak argi geratzen dira gehienetan. Horrek ukitu errealista ematen dio kontakizunari. Gertakizunak bi garaitan koka daitezke. Batetik, Carlos Urrutiaren hilketaren ikerketa, Ane eta Gepperten eskutik, aktualitatean kokatzen da. Beste aldetik, Aneren aitonaren gaztaroan gertatutakoak Bigarren Mundu Gerraren garaian kokatzen dira, 40ko hamarkadaren hasieran.

Gertalekuetara begira, istorioa Nafarroako herrixka batean hasten da. Hala ere, Frantzian ere kokatzen dira zenbait gertakizun, konkretuki Parisen.

## **Gaia**

Aitonaren etxean gizon baten gorpua aurkitu ondoren, Anek ikerketa bat egingo du gertatutakoa guztiz argitzeko.

## **Argumentua**

Ane Duhaldek ia ezagutzen ez zuen aitona baten herentzian baserri bat lortzen du. Bertako kortan lan egiten ari dela, eskuak moztuta dituen gizon baten gorpua aurkitzen du. Hasiera batean hiltzailea aitona dela pentsatu arren, iritzia aldatzen du eta uste baino konplexuagoa izango den ikerketa batean sartzen da.

Gutxinaka, berak uste baino hilketa gehiago gertatu direla eta bere ikerketarekin zerikusia dutela ikusten du. Horrela, ikerketa gero eta gehiago zabaltzen da, jende asko ezagutzen du Anek eta bukaerako emaitzak harrigarriak dira berarentzat, berarekin elkarlanean ibili den Geppert polizia ez delako benetan berak uste izan duen pertsona.

# Istoria

Ane Duhalde, aitona hil eta honen baserrirantz abiatu zen bizitzera bake bila. Bertan bizitzeko garbiketa egiten zegoen egun batean, Eguzkieneko lurrak lantzen ari zela, zerbait arraro aurkitu egin zuen. Lurra kentzen hasi zen eta harriturik geratu zen bere begi aurrean zegoenarekin: gizon baten gorpua zegoen eta, gainera, eskuak moztuta zituela zirudien, xerra batekin-edo. Lur guztia kentzean biktimaren diru-zorroa aurkitu eta Carlos Urrutia zuela izena ikusi zuen. Momentu horretan Anek bere aitona Matias ero hutsa eta hiltzailea zela pentsatu zuen; lehenik poliziari deitzea pentsatu zuen, baina azkenean misterio hori bere kabuz argitzea erabaki zuen.

Gauean baserrira bueltatzean ezin izan zuen lorik egin; garbiketa egiten egon zen hurrengo egunean, bere aitonaren argazki bilduma bat topatu zuen, bertan Matias militarrez jantzitako argazkiak zeuden eta hainbat Anerenak. Azken horrek harritu egin zuen Ane, bere aitona ez zuelako izan familiarekin harreman askorik. Hurrengo egunetan frogen bila hasi zen Ane, horretarako baserriko giltzak hartu eta goiko solairuko geletara sartzea erabaki zuen. Sartzean nahasturik zegoen liburutegia aurkitu zuen. Liburu eta paper nahaste hori ikusita Carlos Urrutiaren nortasun agiria behatzea erabaki zuen eta, horrela, bera bizi zen lekura joan eta bertan Carlos Urrutiaz galdetzea erabaki zuen. Carlos Urrutiaren etxebizitzan Maider izeneko emakumea zegoen bertan bizitzen; hainbat galdera egin zizkion Anek baina ez zekien ezer ere gizonari buruz. Bat-batean Anek aitona berari oparitu zion Ushebti Egiptoar berbera ikusi zuen, eta Carlos Urrutiarena zela adierazi zion Maiderrek. Telefonoak elkarri eman eta gero, elkarri agur esan zioten. Baserrira abiatzean, Ane oso kezkatuta geratu zen bere aitona eta Carlos estatua berbera izatea oso arraroa iruditu zitzaioleko. Gehiago jakiteko lagun bati deitu eta Ushebti-ari buruzko informazioa galdetu zion. Baina ezer ez zekienez, Aneren nahien kontra, Pons izeneko beste lagun bati deitu zion.

Hurrengo egunean, aitonaren liburutegia miatzea pentsatu zuen; han eskela batzuk aurkitu zituen, denek eskuak moztuta aurkitu zituzten, eta hori ezin zen kasualitatea izan; Ane gero eta seguruago zegoen bere aitona hiltzailea zela, baina hilketa ikertzen jarraitu zuen. Eskelen laguntzarekin, bere aitona eta Carlos Bigarren Mundu Gerran borrokatu zutela jakin zuen, eta hil zen baten senide bat bilatu eta deitu egin zion, bien argazkiak elkarri bidali zizkioten hildakoak elkar ezagutzen ote zuten jakiteko.

Egunak pasata, Anek informazio gutxi zuenez eskeletako kasu batzuk eramandako Geppert izeneko polizia erretiratu batekin hitz egin zuen. Geppertek Aneri laguntzea erabaki zuen, 1940ko udan Villeneuveko gazteluan koadro garrantzitsuen lapurreta egon zela esan zion, eta bere aitona eta bere

kideak izan zitezkeela esan zion Aneri. Geppert Eguzkienera joan zen Anerekin arrastoen bila. Lortutakoarekin, poliziako lagun bati deitu, Brisson izenekoa, eta Malenfer izeneko tipo batek Frantzian zuen posta kutxa zuela adierazi zion. Hau Aneri kontatzean biak Malenfer tipo hori arotza izan behar zela pentsatu zuten eta Frantziara joan ziren bera aurkitzeko. Han egunak zeramatzatenean, Malenfer ikusi eta kotxez jarraitu zioten, Maginot mugaraino. Han berarekin hitz egin eta Aneren aitona laguna izan zela kontatu zion eta berari ere arotzak eskuak moztu zizkiola. Eta Villeneuveko gazteluari buruz eta koadroei buruz ere hitz egin zion. Handik aldentuta, Anek gaztelura joatea erabaki zuen aztarna gehiago aurkitzeko eta Geppertek beste leku batera joan behar zuela esan zion Aneri, bere lagun Brissonarekin geratu zelako.

Ane gaztelura ailegatzean, bertan bizi ziren batzuen laguntzarekin, Moulin izeneko gizon bat, gazteluan bizi zena, arotza zela ohartu zen. Bitartean, Geppert ez da berak zioena, berak aspaldidanik zekien Mundu Gerran gertatutako guztia, berak nonbaiten ezkutaturik dagoen gazteluan lapurtutako botina nahi du. Botina non dagoen jakitean bertara joan eta Aneregandik aldentzen da. Botina lapurreta agindu zuenaren etxean ezkutatuta zegoen, bera gerra garaian hil zen, eta Villaneuko gazteluan ostutako koadro baliotsuak beste koadro kaskar batzuen atzean ezkutaturik zeudela jakitean, Geppertek oraindik bizirik dagoen alargunarengana joan eta koadroak ez ematean hil egiten du, eta jarraian alde egiten du.

Geppertek koadroak hartu eta alde egiten du, baina bere zoritxarrerako poliziaren helikopteroa atzetik duelarik koadroak ezkutatu eta inork ikusi gabe autotik salto egiten du, autoa amildegitik behera botaz. Baina, Geppert ez da berak dioena, beraren izena Brisson zen, Gepperten izena hartzen du lapurretak egiteko eta ibilatu ez dezaten. Baina Brissonnek Geppert hil egin zuen Anerekin telefonoz hitz egin zuela jakitean, botina berarentzat bakarrik nahi baitzuen. Horregatik, Gepperten gorpua autoan sartu eta amildegitik bota zuen. Leherketak gorpua ia erabat erre zuen, eta hildakoa ez zuten ezagutu. Brissonnek, bitartean, ezkutatu eta koadro garestiekin ihes egin zuen.

## **Pertsonaiak**

Liburu honetan pertsonaia nahikotxo ateratzen dira, horietako gehienek izaerari buruz asko ez dakigun arren eta orokorrean pertsonaia garatuak ez diren arren.

### **Ane Duhalde**

Neska gazte bat da, umezurtza eta Psikologia ikasi du. Oso autoestima baxua du eta oso zalantzatia da. Hil berri duen aitonaren etxean gorpu bat aurkitu ondoren, edozein gauza egingo du gertatutakoa ikertzeko eta argitzeko.

### **Xavier Geppert**

Pariseko polizia erretiratua da, eta arotza aurkitzearekin obsesionatuta dago (arotza hiltzailea da, bere hildakoei eskuak moztzen baitzizkien). Oso pertsona misteriotsua da eta zerbait ezkututzen du.

### **Cesar**

Cesar Aneren lagun bat da, Nafarroako Unibertsitatean irakasle duena. Zalantzatia eta traketsa da, eta Anerekin maiteminduta dago.

### **Jose Antonio Pons**

Cesarren laguna da, kataluniarra eta Unibertsitateko irakaslea. Aneri bere aitona oparitu zion Ushebti egiptoarraren inguruko informazioa atera nahi dio.

### **Maidier**

Hildakoetako baten etxean bizi den neska da, eta dirua lortzea da bere helburua.

### **Levert**

Pariseko polizia gazte bat da, anbizio handikoa eta lehiakorra. Aneren ikerketarekin erlazioa eduki dezakeen ikerketa batean lan egiten dabil.

## Egituraketa

Alde batetik, liburu honen kanpo egitura aztertuz, kapitulutan banaturik dagoela ikus dezakegu; guztira hogeita hamar kapitulu ditu.

Beste alde batetik, barne egitura aztertuz gero, liburua narrazio lineal batean kontatzen dela esan beharko genuke, eta iraganari buruzko erreferentziak, pertsonaia desberdinen hitzen eta pentsamenduen bidez egiten ditu egileak. Horrez gain, esan behar da, idazleak lehenengo kapituluan istorioan apur bat geroago gertatuko den aurrerapauso bat egiten duela, eta bigarren kapituluan hasieratik, hau da, Ane Duhaldek jaso zuen deitik hasten da kontatzen.

## Baliabideak

Egileak zenbait baliabide erabiltzen ditu irakurketa erakargarriagoa egiteko.

Lehenik eta behin narratzaile motari erreparatuz gero, ikus dezakegu narrazioa hirugarren pertsonan dagoela kontatuta, eta narratzaile orojakilea dela. Izan ere, narratzailearen bidez idazleak pertsonaien ekintzez gain bere izaera eta pentsamenduak ere adierazten ditu.

Beste alde batetik, idazleak gehien erabili duen teknika elkarrizketa dela ikus dezakegu. Alberto Ladron Aranak, elkarrizketa adierazteko moldarik arruntena erabili du, hau da, marra:

*—Gizonezkook emakumeei itxaroten ematen dugun denbora guztia probetxuzko zereginetan emango bagenu, honezkero munduan ez zegokeen ez goserik ez gaixotasunik.*

Horrez gain, idazleak, deskribapenak erabili ditu bere sentsazioak eta ikuspuntuak irakurleari transmititzeko. Deskribapenak ez dira izan luzeak; alderantziz, esaldi laburrak erabili ditu horrela irakurleari eragin handiagoa egin eta berak testua idaztean izan zuen sentsazioa transmititzeko.

*Eskuargien fokuek lizun zetaka ilunak argitzen zituzten porlan hutsezko hormetan. Hezetasun sunda latzak sudurra narritatzen zien.*



---

# Iritzia

Nobela hau nahiko gustatu zaigu. Hasieratik amaierara arte entretenigarria iruditu zaigu, nobelan zehar istorioaren haria mantentzen duelako.

Honetarako oso lagungarria izan da idatzita dagoen modua. Idazleak esaldi labur eta esanguratsu asko sartzen ditu istorioan zehar. Horiei esker, gauza asko esaten ditu hitz gutxitan. Horrela, liburu osoan zehar ez dago aspertzeko momentu askorik, etengabe ekintza garrantzitsu eta interesgarriak gertatzen baitira.

Bestalde, liburuan tratatu den gaia hasieratik gustatu zaigu. Misteriozko gai hau oso entretenigarria izan da. Horretarako idazleak zenbait teknika erabili ditu: esaldi laburrak, elkarrizketak..., horrela irakurketa atseginagoa eginez. Hau asko gustatu zaigu, honi esker liburua jarraian irakurri dugulako eta benetan istorioari lotuta geratu garelako.

Irakurketa erakargarria izan da pertsonaia nagusiak orokorrean nahiko errealak izan direlako. Egia da istorioan jorratzen den gaia eta ondorioz gertatzen diren ekintzak ez direla gure egunerokotasunean gertatzen diren zerbaiten tankerakoak. Baina pertsonaien arazo nagusiak guk geuk eguneroko bizitzan izan diztekegunak izan dira eta, horretaz gain, egiten dituzten ekintzak eta izaten dituzten pentsamenduak gure egunerokotasunera eramán daitezkeenak izan dira.

Horrekin batera, gertakizunen kokapena ezaguna izateak irakurketan lagundu egiten du, horrela errealagoa ematen zuelako eta honek are entretenituagoa bihurtu du obra.

Amaitzeko, dudarik gabe liburua gomendatuko genukeela esan behar dugu, bereziki irakurtzen emozioak sentitu nahi dituzten pertsoneri eta oro har pertsona gazteei, harreman osasuntsuak nolakoak izan behar diren uler dezaten.

---

# Bibliografia

- *Arotzaren eskuak*. Alberto Ladron Arana. Elkar, 2006.

---

# Webgrafia

- <http://euskaljakintza.com/ahaztuen-mendekua-alberto-ladron-arana/>
- <http://zubitegia.armiarma.eus/?i=452>
- [https://eu.wikipedia.org/wiki/Alberto\\_Ladr%C3%B3n](https://eu.wikipedia.org/wiki/Alberto_Ladr%C3%B3n)
- <http://www.atalak.eus/ikasgela/nola-egin/il-gida/index.html>